



Errealitate kontsolidatua da Lea-Artibai Eskualdeko Ikastetxe Mahaiak,  
eskualdearen garapenean duen paper aktiboa.

*Imaginatuz. Sortuz. Berrituz* lelopean, Europar Batasuneko estatu kideek erabaki zuten 2009. urtea sormena eta berrikuntzaren urtea izendatzea -*Sormena eta Berrikuntza. Europako urtea 2009*-. Egitasmo honen helburu nagusia da pertsonen ahalmenen eta gaitasunen bidez aldaketak lortu daitezkeela erakustea, gu, pertsonok, garelako aldaketa irekiak eta eboluzioa eragiten ditugunak gure ideia berritzaileekin. Hau da, Europar Batasunak Sormenak eta Berrikuntzak garapen pertsonalean, ekonomikoan eta sozialean duten eragina erakustea nahi du.

Eta, zein da gaur egun bilatzen den aldaketarik handiena? Gure gizarteak daukan erronkarik handiena *Ezagueraren Gizartea* deritzen denerantz bira egitea da, zientzia, teknologia eta berrikuntzaren bidez. Zalantzarik ez, prozesu honen guztiaren atzean hezkuntza sistemak ezin besteko papera betetzen duela, ikastetxeak baitira, gazteenetatik hasita, gizartean behar diren balioak, jarrerak eta ezaguerak zabaltzen dituztenak.

Beraz, Sormena eta Berrikuntza hitzak entzuterakoan ez dugu bakarrik enpresa handiekin pentsatu behar, erakunde txikienek eta pertsonak bakarka ere badaukate sormenerako eta berrikuntzarako ahalmena.

Azaro Fundazioaren lan ildoetariko bat kultura ekintzailea hedatzea izanik, 2005. urtean hasi zen Lea-Artibai eskualdeko ikastetxeekin lanean, eta 2007. urtean Eskualdeko Ikastetxe Mahaia eratu zen. Bertan, Azaro Fundazioa eta sei ikastetxe elkartu ziren, Bera Kruz Ikastola, Iturrioz-Lekeitio Institutua, Iturrioz-Ondarroa Institutua, Txomin Agirre Ikastola, Resurrección M<sup>a</sup> Azkue Ikastola eta Zubi Zahar Ikastola, hain zuzen ere. Urtero, ikastetxe hauetako zuzendariak eta irakasleak Azaro Fundazioko ordezkariekin biltzen dira Mahaiaren gestio plana egiteko, hau da, ikasturtearen zehar egingo diren ekintzak planifikatzeko. Helburua, gazteen artean ekintzailetasuna suspertzea da, Lea-Artibai eskualdea hobeto ezagutuz eta giza gaitasun batzuk landuz (sormena, talde lana, rola eta lidergoia, komunikazioa,



erabakiak artesa, norik bere buruarengan konfiantza, arazoei konponbidea ematea, frustrazioarekiko tolerantzia).

Aurreko urteetan egin den bezala, 09/10 ikasturte honetan ere gai zehatz baten inguruan egin beharko dute lana parte hartuko duten ikasleek: Lea-Artibaiko lehen sektoreak izan duen bilakaera eta aurreikusten diren joera berritzaileenak aztertu. Horretarako, urte honetan ere Kalatxo liburuxka argitaratu dugu ikasleei lehen sektoreari buruzko informazio emateko, eta, horrez gain, ikasleek lehen sektorearekin lotutako ustiategi desberdinak ikusteko aukera izango dute. Ondoren, ikasleek taldekako lanak egin beharko dituzte jaso duten informazioa eta euren gogoetak batzeko.

Azaro Fundazioak ere berritzaile izateko asmoarekin urte bukaerarako work-cafe egiturako ekitaldi bat antolatuko du, gazteek ezagutu dezaten zertan datzan arazoei konponbideak aurkitzeko denon ahotan dagoen teknika hau. Ondoren, talde bakoitzak egindako talde lanaren emaitzak aurkeztu beharko ditu, baliabide informatikoak erabiliz.

Ezin diogu artikulu honi Eskualdeko Ikastetxe Mahaian parte hartzen duten ikastetxe guztiei eskerrak eman gabe amaierarik eman, egiten duten lanagatik eta erakutsi diguten inplikazio maila handiagatik. Eurei esker, urtetik urtera indarberritu egiten garelako, eta Ezagueraren Gizartea lortzeko gure eskualdea prestatzen laguntzen ari direlako. Aipatzekoa eta eskertzekoa da baita ere, Lan-mahai honen funtzionamenduan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Berrikuntza eta Ekonomia Sustapen Sailak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ematen duten babesa.

Nolako gizartea nahi dugu datozen belaunaldientzako? 2009. urtea Sormena eta Berrikuntzaren urtea da European. Gure etorkizuna denon eskuetan dago, orain sormena eta berrikuntza bidez hartutako erabakiek etorkizun hobea gozatu dezagun digute.